

Eusko Jauriaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak argitarapen hau sortarazi zuen mintegia babestu zuen. Honako edizio hau Gernikako Udalak, Bermeoko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiko Turismo Sustapenerako Sailak, Eusko Jauriaritzako Ingurugiro Sailak eta Zornotzako Udalak ere babestu dute.

Material hauen argitaratzeak ez dakar, berez, babesleak bertan idatzitakoarekin bat etortzerik.

El taller de trabajo que dio lugar a esta publicación fue financiado por el Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco. También han patrocinado esta edición el Ayuntamiento de Gernika, el Ayuntamiento de Bermeo, el Departamento de Promoción Turística de la Diputación Foral de Bizkaia, el Departamento de Medio Ambiente del Gobierno Vasco, y el Ayuntamiento de Amorebieta.

Las entidades patrocinadoras no se identifican necesariamente con los puntos de vista reflejados en la publicación por los diversos autores.

Argitaratzailea / Edita: UNESCO Etxea-Centro UNESCO Euskal Herria.

C UNESCO Etxea.

Egileen C De sus autores.

Koordinazioa / Coordinación: UNESCO Etxea (Mónica Díez Salinas, M. Carmen de la Huerga, Cristina Giménez)

Itzulpena / Traducción : Julen Alvarez.

Inprimaketa / Imprime: Servisistem 2000 S.L.

Ale-kopurua / Tirada: 500

1. edizioa / 1ª edición: 2001eko otsaila / Febrero 2001

L.G. / D.L.:

AURKIBIDEA

Aurkezpena

"Produktu Turistikoaren Diseinu, Lanketa eta Komertzializazioa" izenburupeko Urdaibaiko Turismo Mintegiari buruzko txostena.

Elisabet Azkarate, TAR Turismo Aholkulariak.

Hitzaldiak

- Turismoaren marko teorikoa eta bere enpresa erabilpenak.
Francisco Muñoz de Escalona, Ikerketa Zientifikoetarako Goi Kontseilua-CSIC.
- Urdaibaiko Turismo Partzuergoa tokian tokiko komunitateak eusgarritasunaren bidez hautatutako kudeaketa eta turismo-lankidetzaren eredu gisa.
Mercedes Rodríguez, Turismoa Antolatzen Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritza.
- "Euskadi barrenetik - Euskal Herria zentzu guztietan" izeneko eskarmen-tua Euskal Herriko mendi-nekazaritzarako elkarteek garatutako produktu turistiko gisa.
Lourdes Romano, TAR Turismo Aholkulariak.
- Landa turismoaren inguruko eskarmentu europarrak.
Julia Gomez, Deustuko Unibertsitatea.
- Produktu turistikoaren komertzializazioa.
Amador Robles, SESTUR EM.

Eranskina

Mintegira bildutakoaren eta partaideen zerrenda.

INDICE

Presentación ————— 5

Informe sobre el Taller de Turismo "Diseño, Elaboración y Comercialización de Productos Turísticos".

Elisabet Azkarate, T.A.R. Consultores de Turismo. ————— 9

Ponencias

- El marco teórico del turismo y sus aplicaciones empresariales.
Francisco Muñoz de Escalona, Centro Superior de Investigaciones Científicas-CSIC. ————— 27
- El Consorcio Turístico de Urdaibai como modelo de gestión y cooperación turística de la comunidad local desde la sostenibilidad.
Mercedes Rodríguez, Dirección de Ordenación Turística, Gobierno Vasco. ————— 53
- La experiencia "Euskadi Barrenetik-País Vasco en todos los sentidos" como producto Turístico desarrollado por las Asociaciones de Agricultura de Montaña del País Vasco.
Lurdes Romano, T.A.R. Consultores de Turismo. ————— 67
- Experiencias de turismo rural europeo.
Julia Gómez, Universidad de Deusto. ————— 77
- La comercialización del producto turístico.
Amador Robles, SESTUR S.L. ————— 89

Anexo

Relación de asistentes y participantes en el Taller. ————— 109

2000ko martxoaren 1 eta 2an, Gernikako Udetxea Jauregian, "Produktu Turistiko-en Diseinu, Lanketa eta Komertzializazioa" izeneko Urdaibaiko Turismoari buruzko Mintegi bat burutu zen, eta bertara Urdaibaiko turismo sektorean diharduen hainbat profesional eta jarduera honekin zerikusia duten hainbat erakunde publiko zein pribaturen ordezkariak bildu ziren.

UNESCO Etxearen ekimen honen xedea produktu turistikoaren diseinu eta komertzializazioa lortzeko estrategiak zehazten laguntzea zen, bai eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako turismo eusgarriaren eredu bat garatzeko bideak mugatzen segitzea ere.

Urdaibaiko Turismo Mintegiak eskualdeko turismo jardueraren plangintza eta kudeaketa eusgarrietan sektorea eraginkortasunez koordinatzeko erak bilatzeak piztutako biztanleen partaidetza eta interes kolektiboa erakusteko parada eskaini zigun.

Argitalpen honek mintegian zehar garatutako lan-jardunaldien eta hitzaldien laburpen bat eskaintzen du. Egun haietan barrena eztabaidatu ziren kezka eta proposamen nagusiak islatzen saiatu gara. Ildo honetatik, gure eskerrik beroena eman nahi diegu ikusle eta hizlari guztiei beren ekarpen interesgarriengatik eta baita sortutako partaidetza maila altuagatik ere. Azkenik, erakunde laguntzaileei ere eskerrak eman nahi dizkiegu bereziki, mintegia egiteko eta lan-topagune hauek bultzatzeko azal dutako laguntza eta konpromisoagatik.

UNESCO Etxea
2000ko abendua


Durante los días 1 y 2 de marzo de 2000 tuvo lugar, en el Palacio Udetxea de Gernika, el Taller de Turismo en Urdaibai "Diseño, Elaboración y Comercialización de Productos Turísticos", en el que se dieron cita diversos profesionales del sector turístico en Urdaibai, así como representantes de entidades públicas y privadas relacionadas con esta actividad.

El objetivo de esta iniciativa de UNESCO Etxea era contribuir a la formulación de estrategias para el diseño y la comercialización de productos turísticos, y avanzar en la definición de las líneas de acción a emprender para el desarrollo de un modelo de turismo sostenible en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai.

El Taller de Turismo de Urdaibai representó un ejemplo de participación local e interés colectivo por buscar vías para la coordinación efectiva del sector en la planificación y gestión sostenibles de la actividad turística comarcal.

Esta publicación ofrece una síntesis de las sesiones de trabajo del taller y las ponencias impartidas durante el mismo. Hemos tratado de reflejar las principales inquietudes y propuestas que fueron objeto de debate durante aquellos días. En este sentido, queremos expresar nuestro más sincero agradecimiento al público asistente y a los ponentes invitados por sus interesantes aportaciones y por el elevado nivel de participación generado. Por último, queremos agradecer especialmente el apoyo prestados por las instituciones colaboradoras para la realización del taller y su compromiso en propiciar este tipo de espacios de trabajo.

UNESCO Etxea-Centro UNESCO
Euskal Herria. Diciembre 2000



"Produktu Turistikoen Diseinu,
Lanketa eta Komertzializazioa"
izenburupeko Urdaibaiko Turismo Mintegiari
buruzko txostena.

Elisabet Azkarate
TAR Turismo Aholkulariak



Informe sobre el Taller de Turismo
"Diseño, Elaboración
y Comercialización
de Productos Turísticos".

Elisabet Azkarate
T.A.R. Consultores de Turismo

"Produktu Turistikoaren Diseinu,
Lanketa eta Komertzializazioa"
izenburupeko Urdaibaiko Turismo Mintegiari
buruzko txostena.

Informe sobre el Taller de Turismo
"Diseño, Elaboración y Comercialización
de Productos Turísticos".

Elisabet Azkarate
TAR Turismo Aholkulariak
T.A.R. Consultores de Turismo

JARDUNALDIEN MARKOA

Gernikan, hau da, Urdaibaiko Biosfera Erreserban 2000ko martxoaren 1 eta 2an burutu zen Turismo-Mintegiaren helburu nagusia partaideei Urdaibaitiko eta Urdaibairentzako turismo eskaintza zehaztu, diseinatu eta merkaturatzeko prozesuan behar diren irizpide eta parametroak eskaintzea zen, natur, historia eta kultur baliabideak produktu turistikoaren osagaitzat hartzeari arreta berezia jarrita.

Lan mintegiak bi eguneko iraupena izan zuen lan ikastaro trinko baten planteamendua hartu zuen, eta hizlarien ekarpen teknikoak izan ziren era parte hartzaile eta dinamikoan landu beharreko materia, proposamenak Urdaibairen kasuari aplikatu nahian.

EL MARCO DE LAS JORNADAS

El Taller de Turismo, celebrado en Gernika, Reserva de la Biosfera de Urdaibai, durante los días 1 y 2 de marzo de 2000, tiene como finalidad fundamental ofrecer a los participantes los criterios y parámetros requeridos para el proceso de formulación, diseño y puesta en el mercado de la oferta turística desde y para Urdaibai, con especial atención a la consideración de los recursos naturales, históricos y culturales como componentes del producto turístico.

El taller de trabajo se plantea como un curso de trabajo intensivo de dos días de duración, en el que las aportaciones técnicas de los ponentes constituyen la materia sobre la que trabajar de forma participativa y dinámica, aplicando las propuestas al caso de Urdaibai.

Lanerako ikastaro-mintegiak lortu nahi zituen helburu zehatzak honako hauek ziren:

- Urdaibaiko turismo eragile guztiei eskualdetiko eta eskualdearentzako turismo eskaintza praktikoa eta berriztatzaile bat diseinatu eta gauzatzeko parada eskaintzea.
- Enpresa kultura turistiko baten barruan eskaintza turistiko integratu baten abantailei eta kalitate irizpideei buruzko hausnarketak barreiatzea.
- Turismo eskaintza espezifikoaren garapenera eta beraien antolamendu zuzenerako salmenta-ildo egokiak abian jartzeari ekitea.
- Eskualde nortasunaren balioa sendotzea, turismo ekoizpenaren prozesuari begira.
- Urdaibaiko Turismo Partzuergoaren funtzioen zehaztapenean aurrera egiteko proposamenak garatzea, turismoa kudeatzeko erakunde mistoa eta Hotelarien Elkartearekin eta Landa-Turismoaren sektorearekin batera eskualdeko turismoa komertzializatu eta saltzeko eginbeharretan laguntzeko gai den erakunde gisa.

INAUGURAZIO SAIIOA

Turismo-Mintegia asteazkenean, martxoak 1, inauguratu zen erakunde antolatzaile ororen ordezkarien partaidetzaz.

Inaugurazio saioko partaideak honakok izan ziren: Paul Ortega Etcheverry jn., UNESCO Etxea-ko Zuzendaria; Eusko

Los objetivos específicos que pretende alcanzar el curso- taller de trabajo son:

- Posibilitar la participación de todos los agentes turísticos de Urdaibai en el diseño y elaboración de una oferta turística práctica e innovadora desde y para la comarca.
- Introducir dentro de la cultura empresarial turística consideraciones sobre las ventajas de una oferta turística integrada y sobre criterios de calidad.
- Impulsar el desarrollo de ofertas turísticas específicas y la puesta en marcha de los canales de venta adecuados para su correcta distribución.
- Reforzar el valor de la identidad comarcal de cara al proceso de producción turística.
- Desarrollar propuestas para avanzar en la definición de las funciones del Consorcio Turístico de Urdaibai, como organismo mixto de gestión del turismo y como organismo capaz de apoyar las labores de comercialización y venta de I turismo comarcal en colaboración con la Asociación de Hoteleros y el Sector de Agroturismos.

SESIÓN INAUGURAL

El taller de Turismo fue inaugurado el miércoles 1 de marzo con la participación de los representantes de las distintas entidades organizadoras.

Intervinieron en la sesión inaugural D.Paul Ortega Etcheverry, Director de UNESCO Etxea; Dña.Mercedes Rodrí-

Jaurlaritzako Turismoa Antolatzeke Zuzendari Mercedes Rodriguez and.; Miguel Angel Aranaz Gernikako Alkate jn.; Juan Carlos Goienetxea Bermeoko Alkate jn.; Bizkaiko Foru Aldundiko Turismo Sustapenerako Zuzendari Joseba Escribano jn.; Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren Ordezkarri Xabier Arana jn.

Ortega jn.k, Mintegiaren aurkezpen orokor baten ostean, bertara bildutako sektore turistikoko erakunde, enpresa eta pertsona guztien partaidetza eskertu zuen.

Eusko Jaurlaritzaren ordezkarri Mercedes Rodriguez andreak Erreserba kudeatzeko marko legala turismoaren garapenerako kudeaketa eta antolamendurako tresna gisa ezarri eta Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailak izatekoa den Turismo Partzuergoa, hau da, Erreserbaren marka eta erakargarritasuna funtsatuta dagoen produktu turistiko bat sortzeko prozesua bideratu eta bultzatzea duen tresna bat Euskadi mailako eredu zko proiektu bat izaten laguntzeko daukan interesa adierazi nahi izan zuen.

Gernika eta Bermeoko Alkate jn.ek Euskal Herriko jarduera turistikoaren gero eta garrantzi handiagoa eta jarduera hau eskualde honetan suspertu beharra azpimarratu zuten, hemen turismo baliabide eskergak izateaz gain sortu behar den Turismo Partzuergoan esku hartzeko beren konpromisoa berriki adierazi duten bertako udal guztien apustu argi eta garbi baten bidez jarduera hau garatzeko tresna gisa aritzeko gauza den eskualde-kudeaketarako irudi bat sortzeko bere burua gaur egun prestatzen ari dira-eta.

guez, Directora de Ordenación Turística del Gobierno Vasco; D.Miguel Ángel Aranaz, Alcalde de Gernika; D.Juan Carlos Goienetxea, Alcalde de Bermeo, D.Joseba Escribano, Director de Promoción Turística de la Diputación Foral de Bizkaia, y D.Xabier Arana, en representación del Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco.

El Sr. Ortega realizó una presentación general del Taller y agradeció de la participación de las diferentes instituciones, empresas y personas del sector turístico que se dirieron cita.

Dña. Mercedes Rodríguez, en representación del Gobierno Vasco, estableció el marco legal de gestión de la reserva como instrumento de gestión y ordenación del desarrollo turístico y destacó el interés del Departamento de Turismo del Gobierno Vasco por apoyar el proceso de creación de un proyecto piloto a nivel de Euskadi como es la creación del futuro Consorcio Turístico, instrumento capaz de orientar e impulsar el proceso de creación de un producto turístico basado en la marca y el atractivo de la Reserva.

Los Sres. Alcaldes de Gernika y Bermeo destacaron la creciente importancia de la actividad turística en el País Vasco y la necesidad de fomentar el desarrollo de la actividad en una comarca que cuenta con importantes recursos turísticos y que se prepara para crear una figura de gestión comarcal capaz de actuar como instrumento del desarrollo de la actividad con una apuesta clara y decidida por parte de todos los Ayuntamientos de la zona.

Escribano jn.k, Mintegiaren antolakuntzak emandako poza adierazi ostean, Urdaibaiko Biosfera Erreserbak lurraldearentzat helmuga turistikoa gisa duen balio handia azpimarratu nahi izan zuen.

Xabier Arana jn.k, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Patronatuaren Kudeaketa Arduraduna den aldetik, erakunde honek Erreserbako natur eta kultur balia bideen ezagutza eta gozamen zintzoa bultzatzeko daukan interesa azpimarratu zuen, berau babespen eta natur balio handiko aldean eusgarritasuneranzko kontzientzia baten garapenerako modua baita.

JARDUNALDIEN GARAPENA

Martxoaren lehenean, asteazkenean, Mintegiaren estreinako egunean, bisitaldi bat antolatu zen goizez eskualdean izaten diren balia bide turistikoa nagusiak eta jarduera horrekin zerikusia duten enpresak ezagutzera emateko. Jardunaldi hau Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Zuzendari-Kontserbatzaile **Xabier Arana jn.k** berak zuzendu zuen.

Arratsaldeko lehen saioa On **Francisco Muñoz de Escalona** CSICeko Zientzialari Izendunak eskaini zuen, "**Turismoaren marko teorikoa eta bere enpresa erabilpenak**" izeneko txostena garatu zuelarik. Turismo jardueraren zehaztapenari buruzko azalpen teoriko honetan agerian geratu zen turismoa eta produktu turistikoa zer den finkatzean kontzeptu mailan zer nolako ezjakintasun eta nahaste-borrastea dagoen. Eskaintza eta eskaria, ekoizpena eta kontsumoa identifikatu eta bereizteko eragozpenak nabarmentzeko dira.

El Sr. Escribano expresó su satisfacción por la organización del Taller y destacó el valor de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai como destino turístico de gran interés para el territorio.

El Sr. Arana especificó el interés del Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai en fomentar la ordenación de los recursos turísticos de la reserva en base a criterios de sostenibilidad, posibilitando su conocimiento, uso y disfrute por la población en general como medio para su preservación y para el desarrollo de una conciencia ciudadana responsable en este sentido.

DESARROLLO DE LAS SESIONES DE TRABAJO

La mañana del miércoles 1 de marzo, primer día del Taller, se organizó una jornada de visita para dar a conocer los principales recursos turísticos y empresas relacionadas con la actividad existentes en la comarca. Esta jornada fue guiada por el Director-Conservador de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, **D. Xabier Arana**.

Por la tarde, la primera sesión corrió a cargo de **D. Francisco Muñoz de Escalona**, Científico Titular del Centro Superior de Investigaciones Científicas quien impartió la ponencia, "**El marco teórico del turismo y sus aplicaciones empresariales**". Una exposición teórica sobre la definición de la actividad turística y en la que quedó de manifiesto el desconocimiento y la confusión existente a nivel conceptual acerca de lo que es turismo y de lo que es producto turístico. Hay problemas de identificación y de distanciamiento entre la oferta y la demanda, entre la producción y el consumo.

Azalpen honetan adierazitakoaren arabera, enpresa eta produktu turistikoak helmuga turistikoetan daude, baina ohikoa da turismoa kontsumitzen deneko herri turistiko deitzea da, eta ez ekoizten denekoei. Bere azken ondorioan zioenez, Urdaibaiko Biosfera Erreserbak turismoaren sustapenerako elementu gisa jokatzen du, eta lurralde honetan izaten diren enpresa turistikoek turismo-hornikuntzarako zerbitzuek osatutako eskaintza bat aurkezten dute, baina oraindik ez da salerosteko zerbitzua bihurtu.

Hori guztia turismoaren ekonomia herrikoari, hau da, hornikuntza-eskaintzara mugatzeari dagokion enpresa estrategia baten ondorioz. Beraren aburuz datekeen hornidura-eskaintza eta sortu dugun pizgarri-eskaintzaren bidez produktu katalogo mardul bat burutzeari ekin beharko liokeen turismo enpresa bat sortzean datza benetako enpresa estrategia.

Beraren hitzetan, sekretua ez da bakarrik eskaintza bideratzea, puntu hau Turismoaren Ekonomia Zientifikoaren Dekalogoan jasota egonda ere, Urdaibai aldean turismo enpresa dinamiko eta berriztatzaileak sortzea ere bai baizik. Turismoaren esparruan, merkatuan interesatzen zaizkigun produktuak sartzea da bide bakarra errentagarritasuna, bioaniztasunaren babespena, kultur nortasunaren sustapena eta garapen soziala bezalako xedeak lortzeko.

Muñoz de Escalona jn.ren ustetan, turismoa ekoiztu beharra dago. Ezinbestekoa da jatorrizko premiaren eskaerari erantzutea eta funtsezko eskaintza premia horien bidez neurtzea. Kontua ez da kontzeptu hutsean geratzea, azken produktuak

Según se recogió en su exposición, las empresas turísticas y los productos se localizan en los llamados destinos turísticos y sin embargo es habitual llamar turísticos a aquellos países en los que se consume el turismo en lugar de llamarlos a los países en los que se produce. Como indicaba en su conclusión final, la Reserva de la Biosfera de Urdaibai se comporta como elemento incentivador del turismo, y las empresas turísticas existentes en este territorio componen una oferta de servicios facilitadores del turismo, pero aún no se ha convertido en un servicio mercadeable. Todo ello como resultado de la aplicación de una estrategia empresarial que responde a la economía popular del turismo: limitarnos a la oferta facilitadora. En su opinión la verdadera estrategia empresarial pasa por la creación de una empresa de turismo, encargada de elaborar un nutrido catálogo de productos utilizando la oferta facilitadora que ya existe y la oferta incentivadora que hayamos creado.

Además de la aplicación del enfoque sobre la oferta, incluido en el decálogo de la Economía Científica del Turismo, según sus palabras, el secreto está en la creación de empresas turísticas en la comarca de Urdaibai, empresas dinámicas e innovadoras. Dentro del campo turístico, sólo si ponemos en el mercado los productos que nos interesan podemos conseguir los objetivos de rentabilidad, protección de la biodiversidad, fomento de la identidad cultural y desarrollo social.

En opinión del Sr. Muñoz de Escalona, hay que producir turismo. Es necesario desarrollar una respuesta a la demanda de la necesidad original y dimensionar la oferta básica en función de estas necesidades. No quedarse únicamente en concepto, sino especiali-

ekoiztea baino, eta hauxe da herri igorleek egin izan dutena.

Turismoaren kontzeptuari eta turismoa ekoiztu beharrari buruzko hitzaldi teoriko honen ondoren Eusko Jaurlaritzako Turismoa Antolatzeko Zuzendari **Mercedes Rodriguez Larrauri and.k "Sustapen Ekonomikorako 2000-2003 Erakundeen Arteko Planeko Turismo Lerro Estrategikoak"** izeneko hitzaldia aurkeztu zuen. Aurkezpen honen xede nagusia bertarutako profesionalen turismoaren lerro estrategikoak ezagutzera eman eta turismo partzuergoak EAEko turismo plangintza eta garapenerako tresnak diren aldetik bertan kokatzea zen.

Aipatzekoa da hitzaldi honen egokitasuna, eskualdearentzat funtsezkoa zen une batean egin baitzen, Urdaibai turismo partzuergo bat antolatzen ari zenekoan, hain zuzen ere.

Saioan barrena EAEko eskari eta eskaintza turistikoen ezaugarri orokorren inguruko datuak, sektorearen lerro estrategiko nagusiak eta 2000tik 2003ra bitarteko aurrekontuak ezagutarazi ziren. Euskal turismoaren lerro estrategikoak zazpi puntutan eratuta azaltzen dira:

- Publiko eta pribatuaren arteko harremana.
- Ehun enpresarialaren garapena.
- Kalitate eta lehiakortasunaren hobekuntza.
- Sektorearen heziketa eta trebakuntza.
- Produktu turistikoaren sorkuntza eta komertzializazioa.

zarse en producir productos finales, que es lo que vienen haciendo los países emisores.

Después de esta ponencia teórica sobre concepto de turismo y la necesidad de producir turismo, en el segundo módulo del Taller, la Directora de Ordenación Turística del Gobierno Vasco, **Dña. Mercedes Rodriguez**, presentó la ponencia **"Líneas Turísticas Estratégicas en el Plan Interinstitucional de Promoción Económica 2000-2003"**. Esta presentación tenía como objetivo fundamental difundir las líneas turísticas estratégicas entre los profesionales asistentes y situar a los consorcios turísticos dentro de las mismas, como herramientas de planificación y desarrollo turístico de la C.A.V.

Cabe destacar la oportunidad de esta exposición ya que se realizó en un momento clave para la comarca, por encontrarse Urdaibai en el proceso de constitución de un consorcio turístico.

Durante la sesión se presentaron datos sobre los rasgos generales de la demanda y la oferta turísticas de la C.A.V., las principales líneas estratégicas del sector, así como el escenario presupuestario del período 2000 al 2003. Las líneas estratégicas del turismo vasco se presentan estructuradas en siete puntos:

- Relación publico-privada.
- Desarrollo del tejido empresarial.
- Mejora de la calidad y competitividad.
- Formación y capacitación del sector.
- Creación y comercialización de producto turístico.

- Sustapen eta informazio turistikoak.
- Lurralde eta sektore mailako plangintza eta garapena.

Hitzaldi honek bertara bildutako enpresari ororen interesa piztu zuen, horrela Turismo Zuzendaritza honek onetsitako finantziazio-bideak eta diru-laguntzak era zehatzagoan ezagutu ahal izan baitzituzten.

Mintegiaren bigarren jardunaldia martxoaren 2an burutu zen eta produktu turistikoaren diseinu eta komertzializazioari buruzko azalpenetan oinarritutako 4 saiotan egituratu zen.

Hasiera batean, helburua TAR Turismo Aholkularien kidea den **Elisabet Azkarate and.k** zuzendutako brain storming bat egitea zen, baina azkenean mahainguru bat proposatu zen partaideek produktu turistikoaren komertzializazioak ekarri ohi dituen zalantza, eragozpen eta arazoak plazara zitzaten.

Hitzaldiaren muina herri erakunde baten kudeaketa-prozesuak eta komertzializazioan dituen eskumen-arloak azaltzea zen. Halaber, saio honetan Partzuergoek diseinu, sustapen eta komertzializazioaren arloetan izan ditzaketen eskumenak jorratu ziren, erakundeok, zeregin hauetan aritzeko gai direla ere, merkatura heltzeko bideak behar baitituzte, batik bat merkatu turistikoan eskariaren eta eskaintzaren artean dagoen aldea dela eta.

TAR Turismo Aholkularien kide den **Lourdes Romano and.k** "Euskadi barrenetik - Euskal Herria zentzu guztietan" izeneko proiektua, Landa Turis-

- Promoción e información turísticas.
- Planificación y desarrollo territorial y sectorial.

Su ponencia suscitó un gran interés entre los empresarios asistentes que desearon conocer con más detalle las líneas de financiación y programas de subvenciones aprobadas por esta Dirección de Turismo.

La segunda jornada del Taller tuvo lugar el día 2 de Marzo y se estructuró en 4 sesiones, centradas en la exposición de experiencias de diseño y comercialización de productos turísticos.

En un principio estaba prevista la realización de un brain storming dirigido por **Dña. Elisabet Azkarate**, de T.A.R. Consultores de Turismo, que fue sustituido por una charla coloquio en la que los participantes centraron sus intervenciones en las dudas, dificultades y problemática que planteaba la comercialización de productos turísticos.

La exposición estuvo centrada en la revisión de los procesos de gestión de un organismo público y su áreas de competencia en la comercialización. Asimismo, se debatió en esta sesión sobre las competencias de la figura del Consorcio en el campo del diseño, promoción y comercialización, ya que estos entes aunque competentes en estas labores, necesitan rutas de acceso al mercado (AA.VV, Touroperadores, etc.), debido fundamentalmente al distanciamiento existente en el mercado turístico entre la oferta y la demanda.

Dña. Lurdes Romano, de T.A.R. Consultores de Turismo, presentó el proyecto "**Euskadi Barrenetik: País Vasco en todos los**

morako Produktuak sortzean zetzana, aurkeztu zuen, Busturialdeak burubelarri hartu baitzuen parte proiektuan. Une honetan artxibatuta eta berriro ere abian jartzeaz dagoen lan hau jardunaldiotan azaltzean bere edukia eta produktu turistikoaren diseinu eta komertzializazioaren eremuan garatutako eskarmentua ez ezik bere prozedura metodologikoak ere ezagutarazi nahi zituen, landa-ikerketara izugarria eta enpresak bitarteko komertzializazio-bideak erabili beharraz ohartarazteko ahalegin eskerga suposatu zuen eta.

Azkenik, saio honetan zehar UR 2000 deritzan enpresak garatutako eskarmentua aurkeztu zen; enpresa hau, FITUReko azken edizioan esparru honetako enpresarik onenaren saria eskuratu zuena, Turismo Aktiboan dago espezializatuta.

Laugarren saioa Deustuko Unibertsitateko Turismo Irakasle **Julia Gomez and**.ren ardurapean garatu zen. Honek, baliabide turistikoaren sailkapenari eta beraien definizio eta sailkapenean konstante hartu beharreko irizpideei buruzko sarreratxo baten ostean, Arku Atlantiarreko herrialdeetan produktu turistikoaren sorkuntzan dagoen eskarmentua deskribatu zuen. Bereziki, zenbait departamentu frantsesetan garatutako egitasmoak eta herri honetako sindikatuek ekimenen sustapenean erabili dituzten bideak zehaztu zituen. Kultur turismoarekin harremanetan dauden beste produktu batzuen adibide praktikoa ere jasota suertatu ziren.

Bosgarren saioa SESTURen turismo-aholkulari lanetan jarduten duen On **Amador Robles**ek eskaini zuen, eta beraren izenburua "**Produktu turistikoaren sustapen**

sentidos", trabajo desarrollado a nivel del País Vasco, consistente en la creación de Productos de Turismo Rural, y en el que participó activamente la comarca de Busturialdea. Este trabajo, que se encontraba archivado y a la espera de ser retomado nuevamente, fue expuesto durante las jornadas con el propósito de dar a conocer, además de su contenido y experiencia desarrollada en el campo del diseño y comercialización de productos turísticos, su proceso metodológico, ya que supuso un importante trabajo de campo y sensibilización de las empresas acerca de la utilización de vías de comercialización intermediarias.

Por último, durante esta sesión se presentó la experiencia desarrollada por la empresa UR 2000, especializada en Turismo Activo que en la pasada edición de FITUR, recibió el premio a la mejor empresa en este campo.

La cuarta sesión de trabajo corrió a cargo de **Dña. Julia Gómez**, profesora de Turismo de la Universidad de Deusto, quien realizó un apartado introductorio sobre la tipificación de los recursos turísticos, criterios a tener en cuenta en su definición y clasificación, y describió la experiencia desarrollada en las regiones del Arco Atlántico en la creación de productos turísticos. En concreto, detalló proyectos desarrollados en diferentes departamentos franceses, y las vías de promoción utilizadas por los sindicatos de iniciativas existentes en este país. También se recogieron ejemplos prácticos de productos relacionados con el turismo cultural.

La quinta sesión fue impartida por **D. Amador Robles**, consultor turístico de SESTUR, y tuvo como título genérico "**Promoción y comercialización del producto turístico**".

eta komertzializazioa" izan zen. Produktu bat sortzetik saltzera parte hartzen duten prozesu oro aztertu zen. Landutako beste zenbait alderdi honako hauek izan ziren: merkatuen segmentazioa eta eremu babestuetako landa turismoaren eskariaren jokaera, turismo artekariaren papera eta funtzionamendu-sistemak, marketing plan batek bere baitan jaso behar dituen ezaugarriak, sustapen eta komertzializazio tresnak eta produktu turistikoaren kokapena hala estatu mailako merkatuan nola nazioartekoan, komertzializazio ekimen konkretuen bidez.

Mintegiaren azken saioa, Mercedes Rodríguez and.ren esku egon zena, Turismo Partzuergoaren irudian egon zen oinarriturik, borondatezko izaera duen elkarte eta eskualde-garapen turistikoaren ardatz eratzaile eta antolatzailea den aldetik.

Eskualdean, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Turismo Plan Sektoriala (TPS) onesteaz gain hainbat turismo ikerketa eta plan burutu ere egin da. Plan honek tresna bat behar du, eskualdearen garapen eusgarritik eratortzen diren estrategia, xede, neurri eta ekintza guztiak abian jarriko dituen. Produktu turistiko bat sortzea da gainera TPSn proposatutako neurrietariko bat.

Partzuergo Urdaibaiko Erreserban sustapenean diharduten erakundeak (turismo bulegoak) eta enpresa pribatuak koordinatu beharko dituen erakunde gisa aipatu zen. Mercedes Rodríguez and.ren esanetan, partzuergo ezinbesteko lan-tresna da, kostu nabariak dituen, eta Eusko Jaurlaritza prest egon liteke beraren finantziazioan esku hartzeko.

Se analizaron todos los procesos que intervinieron desde la creación del producto hasta su venta. Otros aspectos tratados fueron la segmentación de mercados y comportamiento de la demanda del turismo rural en los espacios protegidos, el papel y sistemas de funcionamiento de los intermediarios turísticos, las características que un plan de marketing debe de contemplar, las herramientas de promoción y comercialización, así como el posicionamiento del producto turístico tanto en el mercado estatal como internacional mediante la aplicación de acciones comercializadoras concretas.

La última sesión del Taller, a cargo de la Dña. Mercedes Rodríguez, estuvo centrada en la Figura del Consorcio Turístico como ente asociativo de carácter voluntario y eje vertebrador y articulador del desarrollo turístico comarcal.

En la comarca se han llevado a cabo diferentes estudios y planes turísticos, además de la aprobación del Plan Sectorial de Turismo (PST) de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai. Este Plan necesita de un instrumento, una organización que ponga en marcha todas las estrategias, objetivos, medidas y acciones que derivan del desarrollo sostenible de la comarca. La creación de un consorcio turístico es además una de las medidas propuestas en el PST.

Se hizo referencia al consorcio como un ente que en la Reserva de Urdaibai habrá de coordinar a las entidades de promoción existentes (oficinas de turismo) con las empresas privadas. En palabras de Dña. Mercedes Rodríguez, el consorcio es una herramienta de trabajo necesaria, con unos costos evidentes y en cuya financiación el Gobierno Vasco estaría dispuesto a participar.

ONDORIOAK

Ondorio gisa, **Monica Díez Salinas** and.k, UNESCO Etxea - Euskal Herriko UNESCO Zentroko kidea denak, bi egunotan Gernikako Udetxea Jauregian gauzatutako Mintegiari buruzko laburpen bat egin zuen.

UNESCO Etxeari buruz GKE bat dela esan zuen, UNESCOren hastapen eta programak Euskal Herriaren esparruan ezagutarazten diharduela eta, besteak beste, erakunde honekin Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren garapen eusgarriari buruzko eskarmentuak zabaltzeko elkarlanean dabilela. Ildo honetatik, beraren helburua hiritarren partaidetza sustatzea da, natur baliabideen zentzuzko erabilpenari eta natur eta kultur aniztasunaren berezko baloreen iraupenari mesede egiten dioten garapen sozioekonomikorako beste era batzuk bilatu eta abian jarri nahian.

Mintegiari buruzko ondorio nagusiak ondokoak izan ziren:

1. Urdaibaiko turismo sektorean aritzen diren eragile ororen koordinazioaren garrantzia aitortzen da, turismoaren ekoizpen prozesuko protagonistak dira-eta. Premiazkoa da Urdaibain turismoz hornitzen duten zerbitzuak, orain gertatzen ari ez den bezala, eskualdeko bertako enpresek sortutako produktu turistikoaren ekoizpenerako input gisa erabiltzea.
2. Nabarmena da produktu turistiko onak sortzeko premia, merkatu lehiakor batean sartuko bagara, eta errentagarritasun ekonomikorik gorena, bioaniztasunaren babespena, kultur nortasunaren sustapena eta garapen soziala

CONCLUSIONES

A modo de conclusión, **Dña Mónica Díez Salinas**, de UNESCO Etxea-Centro UNESCO Euskal Herria, hizo una síntesis del Taller desarrollado durante estos dos días en el Palacio Udetxea de Gernika.

Presentó a UNESCO Etxea como una ONG que trabaja en la difusión de los principios y programas de la UNESCO en el ámbito del País Vasco, y, entre otros temas, colabora con esta organización en la promoción de experiencias de desarrollo sostenible en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai. Su objetivo en este sentido es fomentar la participación ciudadana en la búsqueda y puesta en marcha de nuevos modelos de desarrollo socioeconómico que favorezcan el uso racional de los recursos naturales y el mantenimiento de los valores inherentes a la diversidad natural y cultural.

Las principales conclusiones referidas al Taller fueron las siguientes:

1. Se reconoce la importancia de la coordinación de los diferentes agentes del sector turístico en Urdaibai, como protagonistas del proceso de producción del turismo. Es necesario que los servicios facilitadores del turismo que se prestan en Urdaibai, se utilicen como inputs de producción de productos turísticos creados por empresas de la propia comarca, no fuera de ella, como está ocurriendo.
2. Se detecta la necesidad de crear productos turísticos de calidad que posibiliten la entrada en un mercado competitivo, y que respondan a los objetivos de máxima rentabilidad económica, protección de la biodiversidad, fomento de

bezalako helburuei erantzun bat ematekotan. Herri lankidetzaren berebizikoa da produktu horien ekoizpen, sustapen eta komertzializazioan.

3. Azpimarratzekoa da, Euskal Herriko Turismorako Lerro Estrategikoen barnean, turismoaren arloan erantzule diren eragile publiko eta pribatuaren arteko komunikazio eta elkarriketa sistemen egituraketa sustatzeari dagokiona eta baita turismoaren dinamizazioa lortzeko lurralde eta sektore planen garapena bultzatzeari buruzkoa ere.
4. Eskaintza eta eskariari egokitzen zaizkien sustapen eta komertzializazio bide eraginkor eta errealistak bilatzearen garrantzia onartuta dago, ahal delarik bi eremuok elkarrengana hurbilduz. Ildo honetatik jarraituz, teknologia berrien erabilera komertzializaziorako zuzeneko eta zeharkako bide berriak eskuratzeko aktibo estrategikoa dela egiaztatzen da.
5. Urdaibain turismoa ekoiztuko duen erakunde bat, helburu eta estrategia zehatzak izango dituen eragile guztiak (arduralaritzaren, enpresaren sektorea eta bertako biztanleak) bildu eta eskualdearen turismo garapen eusgarriaren kudeaketa, sustapen eta dinamizazioarekin zerikusia duten ahaleginak koordinatzeko gai izango dena sortzea beharrezkotzat jotzen da.

MINTEGIAK URDAIBAICO ERRESERBAKO TURISMO JARDUERARI EGINDAKO EKARPENAK

Mintegia Urdaibaiko Erreserbako turismo profesionalen arteko topagune gisa.

la identidad cultural, y desarrollo social. La colaboración pública es de vital importancia para la producción, promoción y comercialización de dichos productos.

3. Se destacan, dentro de las Líneas Estratégicas del Turismo Vasco, la correspondiente a fomentar la estructuración de sistemas de comunicación e interlocución entre los agentes públicos y privados responsables de turismo, y la relativa a impulsar el desarrollo de planes territoriales y sectoriales de dinamización turística.
4. Se reconoce la importancia de buscar vías efectivas y realistas de promoción y comercialización adaptadas a la oferta y a la demanda, acercando ambos espacios. En este sentido, se hace referencia a la importancia del uso de las nuevas tecnologías como activo estratégico facilitador de nuevas vías de comercialización directas e indirectas.
5. Se destaca la necesidad de crear un ente productor de turismo en Urdaibai, con objetivos y estrategias definidas y capaz de aglutinar los distintos agentes (administración, sector empresarial y población local) y coordinar los esfuerzos relacionados con la gestión, promoción y dinamización del desarrollo turístico sostenible comarcal.

LA APORTACIÓN DEL TALLER A LA ACTIVIDAD TURÍSTICA DE LA RESERVA DE URDAIBAI.

El taller como espacio de encuentro de profesionales del turismo de la Reserva de Urdaibai.

UNESCO Etxeak mintegi hau aurkezteko deialdi zabala egin die Erreserbako turismo jarduerarekin harremanetan dauden eragile publiko zein pribatuei eta deialdiak oso erantzun ona izan du, ez bakarrik parte hartu duten turismo jarduerako profesionalen kopuru eta aniztasunaren aldetik, proposamenak eta eztabaidak aditu dituzten herri agintariek, hala lurralde antolamenduan nola udal kudeaketan ibiltzen direnek, erakutsi duten interes handiaren aldetik ere bai baizik.

Jardunaldiok guztion arteko lan eta hausnarketarako topagune bat bezala antolatzeak, eskualdeko turismo sektorearen arazoak, Euskal Herriko beste hainbat helmugatan ere eragina izaten dutenak, oso modu interesgarrian eztabaidatzeko abagunea eman du. Hauek izan dira, besteak beste, jorratu diren zenbait arazo:

- Ekintza osagarriak (esate baterako, ibilbide gidatuak) sortu edo proposatu ahal izateko arazoak, gidaritza turistikoen jarduerari buruzko gaur egungo legeriarik eza ikusita.
- Errepideetarako turismo seinaleztapen homogeneo bat ezarriko duen sistema bat garatzeko zailtasunak Euskal Herriko hizkuntza errealitatearen ondorioz; turistak ezin du parte hartu eta batzuetan lurralde kokapena eragozten da.
- Bidexkak seinaleztatzeko sistema homogeneo bat ezartzeko zailtasuna eta Euskal Herri mailan bidexken mantentzea ziurtatzeko material onak eta homologatuak erabili beharra.
- Eskaintza ezberdinak koordinatu eta uztartzeko oztopoak eta joan-etorrien

UNESCO Etxea ha realizado una amplia convocatoria de presentación del taller a los agentes públicos y privados relacionados con la actividad turística de la Reserva y la convocatoria ha tenido una respuesta muy favorable no sólo por el número y la variedad de profesionales de la actividad turística que han participado en las mismas, sino también por parte de los técnicos y responsables públicos de la gestión territorial y municipal, que han seguido las propuestas y debates con gran interés.

La configuración de las Jornadas como un encuentro de trabajo y reflexión participativa ha favorecido la existencia de debates interesantes sobre la problemática propia del sector turístico comarcal, que en muchos casos afecta también a otros destinos turísticos del País Vasco, como son:

- La problemática existente para crear ofertas de actividades complementarias como pueden ser las rutas guiadas o las propuestas de actividades en la situación actual de una falta de legislación sobre la actividad de las guías turísticas.
- La dificultad para desarrollar un sistema homogéneo de señalización turística en carretera derivada de la realidad lingüística del país, en la que el turista no puede participar y que dificulta a veces la comprensión de la localización en el territorio.
- La dificultad para establecer un sistema homogéneo de señalización de senderos, y la necesidad de utilizar materiales de calidad homologados para asegurar el mantenimiento de los senderos a nivel de todo el País Vasco.
- Dificultad para coordinar y ensamblar las distintas ofertas y formar planes de

eskaintza konkretuak, langile teknikoen eta sektoreko profesionalen aldetik konpromiso eta segimendu maila altua eskatzen dutenak, produktu bihurtzeko zailtasuna.

Beste alde batetik, Eskualdeko egoera turistikoaren puntu ahul eta sendoei buruzko eztabaidak Turismo Partzuergoaren baitan amankomuneko lan esparru bat sortzeak turismo sektorearen garapenean suposatzen dituen posibilitateak kontuan hartzean baiezko iritzi orokorra ekarri du.

Turismo mintegia Urdaibaiko Erreserba-ko turismo profesional, arduradun publiko eta teknikarien arteko lan proposamena finkatzeko jarreraren gertatu den aurrerakuntza gisa:

Mintegiak oso aurrerakada handia ekarri du turismoaren eremuan lan egiteko gero-ko proposamenetan elkarlanean aritzeko konpromiso jarreran, Jardunaldietan egindako lanaren emaitza diren zenbait ondorio, itun eta eragin zuzen honako hauek direlarik:

- Jardunaldietara etorri diren Gidari Turistiko batzuk elkarrekin egon eta ekintza turistikoetarako eskaintzak eduki beharri buruzko eztabaida abiapuntutzat hartu ostean, Jarduera Enpresen elkarte bat sortzea planteatu da, Urdaibaiko Turismo Partzuergoan parte hartzeko asmoz.
- Autonomi eta udal mailako turismo kudeaketan jarduten duen zenbait teknikari eta agintari publiko bertan azaltzeak ere eskualdea turismo merkatuan kokatzeko gai izango diren eskaintza eta produktu turistikoak finkatzeko

desplazamientos y crear productos en forma de ofertas de desplazamientos concretas que requieren un fuerte nivel de compromiso y seguimiento por parte del personal técnico y de los profesionales del sector.

Por otro lado, la realización de los debates sobre las debilidades y fortalezas de la situación turística de la comarca ha concluido en una actitud positiva generalizada hacia las posibilidades de desarrollo del sector turístico que supone la realización de un espacio de trabajo conjunto en el seno del consorcio turístico.

El taller de turismo como un avance en la actitud de consolidación de la propuesta común de trabajo de los distintos profesionales turísticos, responsables públicos y técnicos de la Reserva de Urdaibai.

El taller supone un avance importante en la actitud de compromiso hacia la colaboración en futuras propuestas de trabajo en materia de turismo, destacándose algunas conclusiones, acuerdos y efectos directos que se recogen como fruto del trabajo realizado en las Jornadas:

- A partir del encuentro de varios guías turísticos como asistentes a las jornadas y a partir del debate suscitado sobre la necesidad de contar con ofertas de actividades turísticas, se plantea la creación de una Asociación de Empresas de Actividades para participar en el Consorcio Turístico de Urdaibai.
- La presencia y la participación de varios técnicos y responsables públicos de la gestión turística a nivel autonómico y municipal, fomenta el debate sobre las posibilidades de colaboración público -

asmoz pribatu eta publikoaren artean gerta daitekeen lankidetzaren aukerei buruzko eztabaida sustatzen du eta sektore pribatua eskaintza eta ekintza sortzeko proposamenetan elkarlanean ibiltzera animatzen du, esate baterako Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren markoan kokatzeko bere apustu profesionala plazaratuz, natur multiabentura eta ekintzek osatutako pakete turistiko bat eskaintzen duen Ur 2000 enpresaren kasuan.


- Urdaibaiko Turismo Partzuergoa Urdabairen helmuga turistikoa kudeatu, sustatu eta bultzatzeko gai den erakunde gisa etorkizunean abian jartzeko publiko eta pribatuaren arteko lankidetzarako prozesu eta konpromisoa finkatzen da, Gernika eta Bermeoko Udalek Udal Turismo Bulegoen lana eta turismoaren eskualde kudeaketa koordinatzeko duten interesa oso argia delarik, eskaintzak kudeatu eta sustatu behar dituzten arduradunen arteko elkarlan teknikorako ildoak zabalduz.
- Urdaibai marka natur eta kultur eremuaren kalitate eduki handiak dituen marka turistikoa izateko interes orokorra ere sendotzen da.
- Urdaibaiko Erreserbako Patronatuak ingurugiro antolamendu eta kudeaketa, Erreserbaren natur eta kultur baliabideak indarrean jartzea eta ingurugiro jardueri lotutako mintegiak eratzea eta abar bezalako Erreserbaren eskumen-alderdiekin harremanetan dauden turismo ekintzen garapen eta finkapenean laguntzeko erantzukizuna irmotzen da.

privada en la consolidación de ofertas y productos turísticos capaces de situar la Comarca en el mercado turístico y anima al sector privado a colaborar en las distintas propuestas de creación de ofertas y actividades, como es el caso de la empresa Ur 2.000, que presenta un paquete turístico de multiaventura y actividades en la naturaleza expresando su apuesta profesional por localizarse en el marco de la Reserva de Urdaibai.

- Se consolida el proceso y el compromiso de colaboración público-privada en la futura gestión del Consorcio Turístico de Urdaibai, como organismo capaz de gestionar, promocionar y apoyar el destino turístico de Urdaibai, destacándose el interés de los Ayuntamientos de Gernika y Bermeo por coordinar las labores de las oficinas de turismo municipales con la gestión comarcal de turismo, estableciendo una línea de colaboración técnica entre los distintos responsables de las áreas de gestión y promoción de las ofertas.
- Se consolida también el interés general de adquirir la Marca de Urdaibai como marca turística con claros contenidos en términos de calidad del espacio natural y cultural.
- Se refuerza el compromiso de colaboración del Patronato de la Reserva de Urdaibai en el proceso de desarrollo y consolidación de actividades turísticas relacionadas con los aspectos competenciales de la Reserva como son la ordenación y gestión ambiental, la puesta en valor de los recursos naturales y culturales de la Reserva y la formación de talleres relacionados con actividades ambientales etc.



Hitzaldiak



Ponencias

Turismoaren marko teorikoa eta bere enpresa erabilpenak¹

El marco teórico del turismo y sus aplicaciones empresariales¹

Francisco Muñoz de Escalona
CSICeko Zientzialari Izenduna
Científico Titular del CSIC-Centro Superior de Investigaciones Científicas

PARADIGMA KONBENTZIONALAREN DEKALOGOIA

XX. mendean zehar turismoaren analisisa eredu bat, paradigma bat eratu da, ikerlarien komunitatearen adostasun eta oniritzi orokorra edukitzeak konbentzionalizatzen jarazten diguna. Beraren funtsezko elementuak honako hauek dira:

1. Turista atsegin-bidaia bat egiten duen edonor da.
2. Turista da analisisa. Hunziker eta Krapf-en esanetan (1942): "in mittel der Mann" (gizakia erdian dago). Beraz, kontsumo turistikoa turistek kontsumitzen duten guztia da, eskari turistikoa turistek eskatzen duten guztia da eta produktu turistikoak turistek erosten dituzten produktu guztiak (ondasunak zein zerbitzuak) dira.

DECÁLOGO DEL PARADIGMA CONVENCIONAL

A lo largo del siglo XX se ha ido configurando un modelo de análisis del turismo, un *paradigma*, al que consideramos convencional porque cuenta con el consenso y la aquiescencia generalizada de la comunidad de estudiosos. Sus elementos fundamentales son los siguientes:

1. Turista es quien hace un viaje de placer.
2. El turista ocupa el lugar central del análisis. En frase de Hunziker y Krapf (1942): "in mittel der Mann" (el hombre está en el centro). Por consiguiente, el consumo turístico es *todo* lo que consumen los turistas, la demanda turística es *todo* lo que demandan los turistas y productos turísticos son *todos* los productos (bienes o servicios) que adquieren los turistas.

3. Enpresa turistikoak turisten premiei aurre egiten dieten enpresak dira, hau da, ondasun eta zerbitzu turistikoak ekoizten dituztenak. Produktu turistikoaren merkatuari merkatu turistiko deritza.
4. Badira ekoiztiak ez diren produktu turistikoak. Egoera librean daude edo kolektibitatearena den ondarearen forma hartzen dute. Ez dute jabe ezagunik edo ezagut daitekeenik. Hortaz, nolabaiteko berezitasuna, interes turistikoa izatearena hain zuzen, duten ondasun kolektibo edo publikoak dira.
5. Turismoaren ekoizpena ezin da kontsumotik banatu. Bestela esanda: turismoa kontsumitzeaz batera ekoizten da eta kontsumitzailearen parte hartzea nabaria eta beharrezkoa da. Kontsumitzaileak esku hartzen ez badu ez dago turismoa ekoizterik.
6. Enpresa turistikoak eta produktu turistikoak "helmuga turistiko" izeneko lekuetan daude kokatuta. Helmuga turistikoak turistak "eurrez" abiatzen diren lekuak dira (herri, eskualde, herrialde edo nazioak). Helmuga turistikoak produktu turistikoak dira.
7. Helmuga turistikoek leku berezia daukate analisian. Espazio edo lurralde izariak esanahi estrategikoa hartzen du analisian.
8. Sektore publikoak esku hartu ezean ez dago jarduera turistikorik. Herri lanean egiten diren inbertsioak ekoizpen turistikoaren osagai bat dira. Turistek erabiltzen dituzten azpiegiturak, ia-ia izaten diren guztiak, produktu turistikoak dira.
3. Empresas turísticas son las empresas que atienden las necesidades de los turistas, es decir, las que producen bienes y servicios turísticos. Al mercado de los productos turísticos se le llama mercado turístico.
4. Hay productos turísticos que no son producidos. Se encuentran en estado libre o adoptan la forma de patrimonio propiedad de la colectividad. No tienen propietario identificado o identificable. Son, por tanto, bienes colectivos o *públicos* dotados de cierta singularidad, la de tener interés turístico.
5. La producción de turismo es inseparable del consumo. Dicho de otro modo: El turismo se produce al mismo tiempo que se consume y con la participación destacada y obligada del consumidor. Sin la participación del consumidor no es posible producir turismo.
